

## IKASTAROA: GARAPEN PROFESIONALERAKO KONPETENTZIA DIGITALA

### Irakasela:

**Rakel Gamito Gonzalez**

Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan dokorea (2019), Psikodidaktika: Hezkuntzaren Psikologia eta Berariazko Didaktikak Masterra (2016) eta Haur Hezkuntzan graduatua (2015). Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Didaktika eta Eskola Antolakuntza sailerako irakaslea. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia ikasgaia ematen du Hezkuntza eta Kirol Fakultatean, eta IKTak eta Konpetentzia Digitalak Hezkuntzan, Etengabeko Formakuntzan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan online graduondokoan parte hartzen du. IkHezi (IT 1304-19) Eusko Jaurlaritzako talde kontsolidatuko ikertzailea. Hezkuntza-teknologia, gaitasun digitala, irakasleen prestakuntza, ikaskuntza-zerbitzua eta genero ikuspegia dira haren lan-ildo nagusiak.

### Zergatik ikastaro hau?

2006an, konpetentzia digitala oinarritzko gaitasun izendatu zuten Europako Parlamentuak eta Europar Batasuneko Kontseiluak, estatu kideen hezkuntza iraunkorrerako erreferentzia markoaren baitan (2006/962/CE). Dokumentuan, Informazio eta Komunikazio Teknologia (IKT) arloarekiko jarrera kritikoa azpimarratzen da eta oinarritzko gaitasun hauek zehazten dira: IKTak erabiltzea informazioa lortzeko, ebaluatzeko, gordetzeko, sortzeko, aurkezteko eta trukatzeko eta Internet bidez kolaborazio-sareetan komunikatzeko eta parte hartzeko.

Ildo beretik, 2013ko abuztuan **DIGCOMP: A Framework for Developing and Understanding Digital Competence in Europe** proiektuaren txostena (Ferrari, 2013) argitaratu zuen Europako Batzordeak, konpetentzia digitalaren definizio sendo eta ofizial bat eskaintzeko. Bertan, konpetentzia digitalaren bost arlo zehazten dira: informazioa eta informazio-alfabetatzea, komunikazioa eta lankidetzeta, eduki digitalak sortzea, segurtasuna eta arazoaren ebazpena.

Ostean, **DigComp**-en bertsio eguneratuak eta bestelako askotariko dokumentuak argitaratu dira, beti konpetentzia digitalaren dimentsioak sakontzeko eta sustatzeko asmoz.

Ondorioz, lan esparruan IKTak osagai bilakatzeko eta teknologia modu berritzailean erabiltzeko, ezinbestekoa da DigComp markoak diona kontuan izatea eta profesionalak horren arabera formatzea. Horregatik, ikastaro honen helburu nagusia hori bera da: Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako profesionalen konpetentzia digitala indartzea.

#### Egutegia / Calendario:

Urriaren 29tik  
abenduaren 10era  
2020

Del 29 de octubre al 10  
de diciembre  
2020

#### Modalitatea:

ONLINE

#### Iraupena / Duración:

30 ordu (25 teoria eta  
5 praktika)

#### Matrikula / Matrícula:

Socios(as): 120€  
Socios(as) desempleo: 60€  
No socios(as): 180€

#### Harremanetarako / Contacto:

[aldee@aldee.eus](mailto:aldee@aldee.eus)  
tel.: 943462024

#### Elkarlanean / Colaboran:



#### Babesten / Patrocinan:



## Helburuak

Honako helburu orokor hauek erdietsi nahi ditu ikastaro honek:

- Konpetentzia digitalaren definizioa ulertzea, gaur egun jendarteko kide aktiboa izateko zein profesionalki garatzeko oinarritzko gaitasuna dela barneratzeko.
- Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako profesionalen garapen profesionalerako lagungarriak izan daitezkeen trebezia eta baliabide digitalak ezagutzea.
- Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako profesionalen eguneroko ekintzak modu eraginkorrean antolatzeko eta taldeko koordinazioa bermatzeko lagungarriak diren erreminta digitalak eta horien aukerak arakatzea.
- Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako profesionalak eduki digitalak sortzeko interesgarriak izan daitezkeen baliabide batzuk ezagutzea.
- Ezagutzaren eraikuntza eta ikasketa-prozesu esanguratsua komunikazio eta elkarreragin digitalean oinarritzea, banaka zein taldeka online lan egiteko oinarriak ezartzeko.

## Hartzaileak

Ikastaro honen helburu nagusia Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako profesionalen konpetentzia digitala indartzea da.

## Metodologia

Sei astetan banatzen den prestakuntza eskainiko da eta, modu praktikoa, parte-hartzaile eta erreflexiboan, konpetentzia digitalaren definizioa zein profesionalak euren banakako lanak zein taldean aritzeko lagungarriak diren baliabide digitalak aztertu eta landuko dira.

## Edukia

Helburuak lortze bidean, ikastaroan zehar landuko diren edukien hautaketa egin da, eta sei multzo nagusitan banatu dira:

- Konpetentzia digitalaren definizioa: ezagutzak, trebeziak eta jarrerak.
- Norberaren Lan Alorra.
- Informazio-iturriak (liburuak, aldizkariak, webguneak, sare sozialak eta horiek guztiak jarraitzeko/antolatzeko baliabideak).
- Eguneroko ekintzak antolatzeko (egutegia, zereginak, posta elektronikoa).
- Edukiak sortzeko baliabide digitalak (idatzizko dokumentuak, aurkezpenak, posterrak, bideoak...).
- Taldean lan egiteko (koordinaziorako eta elkarlanerako) eta sarean aktiboki parte hartzeko erreminta digitalak.

### Egutegia / Calendario:

**Urriaren 29tik  
abenduaren 10era  
2020**

**Del 29 de octubre al 10  
de diciembre  
2020**

### Modalitatea:

ONLINE

### Iraupena / Duración:

30 ordu (25 teoria eta  
5 praktika)

### Matrikula / Matrícula:

Socios(as): 120€  
Socios(as) desempleo: 60€  
No socios(as): 180€

### Harremanetarako / Contacto:

[alde@alde.eus](mailto:alde@alde.eus)  
tel.: 943462024

### Elkarlanean / Colaboran:



### Babesten / Patrocinan:



## Programa

Orotara, parte-hartzaile bakoitzak 30 orduko online lana egingo du, honela banatuta:

- Edukien lanketa: 25 ordu
- Proiektua: 5 ordu

Astea	Gaia	Edukiak
1	0. Martxan jartzen gara!	Plataforma ezagutu, ikastaroaren nondik norakoan berri izan, aurkezpenak eta aurrezagutzak.
	1. Konpetentziadigi tala, oinarritzko gaitasuna	Konpetentzia digitalaren definizioa: ezagutzak, trebeziak eta jarrerak.
2	2. Norberaren garapen profesionala: hausnarketa eta ezagutzak partekatu	Norberaren lan alorra.
3	3. Informazioa eta antolakuntza	Informazio-iturriak (liburuak, aldizkariak, webguneak, sare sozialak eta horiek guztiak jarraitzeko/antolatzeko baliabideak). Eguneroko ekintzak antolatzeko (egutegia, zereginak, posta elektronikoa).
4	4. Eduki digitalak sortzea	Edukiak sortzeko baliabide digitalak (idatzizko dokumentuak, aurkezpenak, posterrak, bideoak...).
5	5. Komunikazioa eta lankidetzak	Taldean lan egiteko (koordinaziorako eta elkarlanerako) eta sarean aktiboki parte hartzeko erreminta digitalak.
6	6. Proiektua	Norberaren gaitasun kritikoari buruzko Hausnarketa..

### Egutegia / Calendario:

**Urriaren 29tik  
abenduaren 10era  
2020**

**Del 29 de octubre al 10  
de diciembre  
2020**

### Modalitatea:

ONLINE

### Iraupena / Duración:

30 ordu (25 teoria eta  
5 praktika)

### Matrikula / Matrícula:

Socios(as): 120€  
Socios(as) desempleo: 60€  
No socios(as): 180€

### Harremanetarako / Contacto:

[aldee@aldee.eus](mailto:aldee@aldee.eus)  
tel.: 943462024

### Elkarlanean / Colaboran:



### Babesten / Patrocinan:



## Oharrak

Leku mugatuak.  
Izen-emate ordenaren arabera emango dira.

## Titulazioa

UEUK ikastaro honetan parte hartzen dutenei titulazio akademikoa emango die,  
ikastaroari dagozkion orduen arabera.

### Egutegia / Calendario:

**Urriaren 29tik  
abenduaren 10era  
2020**

**Del 29 de octubre al 10  
de diciembre  
2020**

### Modalitatea:

ONLINE

### Iraupena / Duración:

30 ordu (25 teoria eta  
5 praktika)

### Matrikula / Matrícula:

Socios(as): 120€  
Socios(as) desempleo: 60€  
No socios(as): 180€

### Harremanetarako / Contacto:

[aldee@aldee.eus](mailto:aldee@aldee.eus)  
tel.: 943462024

### Elkarlanean / Colaboran:



### Babesten / Patrocinan:

